

Adiskideak eta etsaiak

Antton Izagirre

Harridura, amorrua, haserrea, nahigabea, etsipena... dira egunotan politikaren esparrutik ematen dizkiguten albisteek sortzen dizkiguten emozioak. Garai politikoak, koiunturak, faseak, taktikak eta estrategiak ondo ulertzean omen dago politikaren epe motzeko eta luzeko jarduna behar bezala interpretatzeko gakoa.

Baina argi dago Espainiako Gobernuak Kataluniako erreferendumaren aurka birtarteko guztiak erabiltzen ari denean PNV Eusko Jaurlaritzatik –Urkullu buru dela– ematen ari zaion laguntza ezin uler daitekeela gure analisi gaitasun mugatuaz.

Sinesgaitza eta ankerkeria iruditzen zaigu Kataluniatik –ez soilik Kataluniarako, bai Euskal Herriaren burujabetzari begira, baita Espainiako erregimen zaharra iraultzeari begira ere– egiten ari diren apustu

estrategikoa ikusita nola hemengo ardurdun politikoak Espainiaren irudi atzerakoiena ordezkatzeko duen alderdiarekin eta politikariekin lerrokatzen diren Katalunia bakarrik utzita. Ezin dugu ulertu zertan datzan haiek dioten erantzukizuna.

Etsipena sortzen digu Rajoyk, bai Urkulluren jarduna eredutzat hartzen entzuten dugunean bai Kataluniak demokratikoki erabakitako bide-orria mehatxupean jartzen duenean. Begien bistan dago azkenaldian Rajoyk Eusko Jaurlaritzari aitortutako lorpenak kataluniar herritarrengan zalantza, beldurra eta etsipena sortzea eta politikariak presiopean jartzea duela helburu. Hemengo politikariak ere horretaz baliatu direnean, helburu beraren nahitaezko kolaboratzaile bilakatu dira.

Haserrea sortzen digu sistemaren defentsan diharduten botere mediatiko

guztien bozgorailuetatik igorri zaizkien txalo eta laudorioetan hain eroso eta ezti ikustea hemengo ardurdun politikoak, jakinik merituak Estatuari aurre egiten dion kataluniar herriarenak direla.

Erronkaren neurriaz jakitun, morrontza horrek luzaroan utz dezake kolpatua herri honen burujabetza nahia. Orain irudikatutako jokaldiak agerian uzten baitu etorkizunean gure herriarentzat lortu beharreko estatus juridiko berriaren mugak noraino hel daitezkeen.

Eusko Jaurlaritzako politikoen bosteko eta akordio besarkada ustel horietatik haratago, herrien arteko besarkadaz mintzo behar dugu. Urriaren 1eko galdeketa aurrean, Kataluniak, euskal herritarren elkartasun zabala jasoko du eta irailaren 11n, Diada egunean, ozenki, haien aldarria geure egingo dugu. •

Larrialdietara

Miren Azkarate

Sarri pentsatu izan dut niri ez dago-kidan garai batean jaio naizela; adibidez, nire gurasoak jaio ziren hamarkadan sortu izan banintz, uste dut askoz hobeto egokituko nintzatekeela bizitzara. Akaso, aitona-amonen garaian ere gehiago ikusten dut nire burua suertatu zaizkidan hamarkada hauetan baino.

Zertan oinarritzen naizen hau esateko? Ba adibide batean baino gehiagotan; badela musika aldetik, garai politikoa, harremanetan... Eta batez ere hemen egingo dut geldialdia: harremantzeko moduetan. Lehen kolektiboagoa eta gertukoagoa zena gaur egun indibidualista eta hotza bihurtu da. Urte batzuk atzera eginda Mari Karmen, Isidro eta Pierre ziren garrantzitsuak, gaur egun, aldiz, Huawei, Samsung eta Apple bezalako izenak gailendu dira.

Urteak dira mugikorrari begira bizi gara. Nik saltoa espetxetik atera nintzenean ikusi nuen nabarmen. Ordura arte deiak eta SMSak bidaltzeko erabiltzen genituen gailu horiek, eta, gainera, ez zegoen guztion eskura horrelako bat izatea. Urte batzuk kartzelan eman eta handik ateratzean, ukipen pantailadun segapotoak zituen mundu guztiak. Facebooken sorrera eta horrelakoak ere garai hartakoak dira. Denak edozein lekutan mugikorrei begira edo haietatik hizketan; autobusetan, merkatuan, liburutegian, lagun artean... lagunekin zeudenak ere euren artean hitz egin beharrean apartuari begira!!!

Teknologia berrien tren azkar hura hartu behar izan nuen nire lanagatik, hala moduz eta ez gustuz, beldurgarria irudi-

tzen zaidan zerbait delako. Izutzen nau nora goazen eta gure ondorengoek zer-nolako mundua biziko duten. Eta gehiago duela bi aste ikusi nuen adibidea ikusi ondoren.

Donostiako Ospitaleko Larrialdietan nengoela, itxarongelan zain zeuden guztiak ari ziren mugikorrekin hitz egiten edo Whatsappetik elkarrizketak izaten edo Facebooka eta horrelakoak begiratzen... Eta ez bakarrik gaizki zegoena laguntzera zihoana, baita gaizki zegoena bera ere! «Aizue! Larrialdi gela batean zaudete!».

Ospitaletako Larrialdietako itxarongelak beteko nituzke nik, baina mugikorraren mendekotasuna tratatzeko. Oraindik ez dago gaixotasun bezala katalogatua, baina, nire uste apalean, beharko luke. Larria gainera! •